

INMERSIONES

2012 PAKEAN UTZI ARTEA

“UN AÑO MÁS CONSEGUIMOS
SACAR ADELANTE INMERSIONES”



SARRERA	2
AURREKO ARGITALPENAK	4
DOSIER ERAKUSKETA	8
HOSPITALARIOS	9
BILTZARRA	15
ENRIQUE FLORES	31

INTRODUCCIÓN.....	2
EDICIONES ANTERIORES.....	4
EXPOSICIÓN DE DOSIERES.....	8
HOSPITALARIOS.....	9
CONGRESO.....	15
ENRIQUE FLORES.....	31

INMERSIONES. ZER DA?

Inmersiones proiektu independente bat da; hots, emititzeko esparru berriak behar dituzten arte eta kultur ekoizpen-lanei erantzuteko sortu den gailu bat. Hamaika aldiz erabili den “arte emergentea” kontzeptuaren aurrean, helburu du erakunde publikoak eta ikus-entzule berriak jarduera garaikideen sarean “murgildu” daitezen eragitea.

INMERSIONES. EGILEAK:

Edizio berri bakoitzean aldatu egiten da erregistroz Inmersiones ekimenaren formatua, eta talde eragile berri baten bultzadarekin jartzen da abian. 2012ko edizioan, zehazki, taldeak kide hauek ditu: Fernando Iglesias, Nerea Lekuona, Iñaki Larribe, Cristina Arrazola-Oñate eta Arturo / fito Rodríguez gehi adiskide eta laguntzaile asko eta asko.

INMERSIONES. NOREN LAGUNTZAREKIN:

Inmersiones ekimenak Eusko Jaurlaritzan aurkitu du finantzaketa, Arte Plastikoen eta Ikusizkoen arloko jarduerak sustatzeko laguntzen deialdiaren bidez, bai eta 2012 Fundazioan ere. Bestelako laguntzaileak ere baditu: Gauekoak, Espacio Zuloa, Berakah, bai eta Gasteizko hainbat kolektibo ere. Inmersiones, era berean, kolaboratzaile eta adiskideen sare bat da.

INMERSIONES / 2012KO GAIA:

Inmersiones ekimenak bakearen gaiari heldu dio bere bosgarren edizioan, tentsio ugari lotuta dagoen termino bat baita. Bate-tik, paradoxikoa bada ere, terminoak berak oraindik ere gatazkatsua izaten jarraitzen du gure gizarte globalean eta gure testuingururik hurbilenean. Bestetik, haren esanahiak berehalakoan ekartzen digu gogora zenbat modu dauden indarkeria gure eguneroko bizitzan inskribatzeko, berdefinizioz aurkitzen ez duen gizarte eta ekonomia eredu baten ondorioz. Bakeak, gaur egun, borroka tokia izaten jarraitzen du; konkistatzen den lurralde bat.

“PAKEAN UTZI ARTEA”

Bere garaiarekin konprometitua dagoen lan bat egiten duten sortzaileen, bitartekarien, ikertzaileen eta kolektiboen bila ari gara. Lan honen mami kontzeptualak hainbat ardatz izango ditu: esaterako, indarkeria mota desberdinak eta bake-adiera desberdinak, eta horrekin batera, artean oinarritutako konpromisoak egun hartzen dituen forma desberdinak eta arteak gaur egun

betetzen duen eginkizunaz galdetzen duten arte-proposamenak. “Pakean utzi arte-a”, izan ere, gure ahotsa entzunarazteko modu ona da.

INMERSIONES 2012. DEIA:

Edizio honetan, Inmersiones-ek instituzio artistikoaren esparruetatik atera nahi du. Horregatik, talde eragileak ahalegin berezia egin du kokapen berrien bila: Espacio Zuloa izango du eskura, baina bestelako lekuak ere Gasteizko Alde Zaharrean. Ideia da leku horien arteko ibilbide bat egitea eta, egun horietan, hiriaren bizitzan egiazko murgilketa bat egitea.

Inmersiones-en apustu hau erronka handia da, bere indarra proiektuaren ezaugarri independentean pausatzen duelako, eta pausatuta, halaber, aukera berriak bilatu behar izatean eta herritarren bizitzan txertatu behar izatean. Horregatik, eta artea eta kultura gure lurraldean nola dauden ikusita, inoiz baino gehiago Euskal Herriko artisten, jendearen, elkarteen eta kultur eragileen engaia mendua behar dugu.

INMERSIONES ES:

Inmersiones es un proyecto independiente, un dispositivo creado para atender a las producciones artísticas y culturales más próximas que precisan de nuevos espacios para su emisión. Su objetivo es, frente al manido concepto de “arte emergente”, provocar la “inmersión” de las instituciones públicas y de nuevas audiencias en el entramado de las prácticas contemporáneas.

INMERSIONES ESTÁ HECHO POR:

Con cada nueva edición, el formato de Inmersiones cambia de registro y se pone en marcha con el impulso de un nuevo grupo motor. En la edición de 2012, este grupo está compuesto por: Fernando Iglesias, Nerea Lekuona, Iñaki Larribe, Cristina Arrazola-Oñate y Arturo / fito Rodríguez más una larga lista de amigxs y colaboradorxs.

INMERSIONES ESTÁ HECHO CON:

Inmersiones ha encontrado financiación en el Gobierno Vasco a partir de la convocatoria de Ayudas para el Fomento de Actividades en el Área de Artes Plásticas y Visuales y en la Fundación 2012. También cuenta con el apoyo de Gauekoak, Espacio Zuloa, Berakah, así como de diversos colectivos de Gasteiz. Inmersiones es también una red de colaboradorxs y de amigxs.

INMERSIONES / TEMA 2012:

El proyecto Inmersiones en su quinta convocatoria aborda el tema de la paz como término sujeto a múltiples tensiones. Por un lado resulta paradójico que el propio término siga siendo conflictivo en nuestra sociedad global y en nuestro contexto inmediato. Por otro lado, su significado alude inmediatamente a las muchas maneras en las

que la violencia se inscribe en nuestra vida cotidiana como consecuencia de un modelo social y económico que no encuentra redefinición. La paz sigue siendo hoy un espacio de lucha, un territorio que se conquista.

“PAKEAN UTZI ARTEA”

Buscamos creadorxs, mediadorxs, investigadorxs y colectivos que realicen un trabajo comprometido con su tiempo. El núcleo conceptual de este trabajo se centrará en las distintas formas de violencia y las distintas acepciones de paz, en las diferentes formas que adquiere hoy el compromiso desde el arte y en aquellas propuestas artísticas que se preguntan por el papel que juega el arte hoy en día. “Que nos dejen en paz”, es una buena manera de hacer oír nuestra voz.

INMERSIONES 2012. LLAMADA:

En esta edición Inmersiones quiere salirse de los espacios de la institución artística. Por eso desde el grupo motor se ha hecho un esfuerzo especial en buscar nuevas localizaciones: contaremos con Espacio Zuloa, pero también con otros espacios en el Casco Viejo de Gasteiz; la idea es establecer un recorrido entre estos lugares y hacer una verdadera inmersión en la vida de la ciudad durante estos días.

Esta apuesta de Inmersiones supone todo un reto pues vuelca sus energías en la característica independiente del proyecto, en su necesidad de buscar nuevos horizontes y de integrarse en la vida ciudadana. Por ello, y ante la situación en la que se encuentra el arte y la cultura en nuestro territorio, necesitamos más que nunca la implicación de artistas, público, asociaciones y agentes culturales de Euskal Herria.



Inmersiones 2012

INTRO_INMERSIONES_2012

INMERSIONES, denboraren joanean, behatoki artistiko bat izatera iritsi da, halako gailu deslokalizatu bat, ekimen birakari eta aldakor bat, eta oso hurbil bizi da eta oso hurbil dirau bizirik dela kulturak dela kulturari buruzko politikek duten egoeratik.

2012an, INMERSIONES ekimenaren bosgarren ediziora iritsi gara eta, bost urteko ibilbidean, 250etik gora artista izan dira gurean, eta erakusketak ekoizteaz gain, hainbat argitalpen ere argitaratu ditugu; halaber, sortzaileei entzun egin diegu eta haien arteko harremana sustatu; gauza asko egin ditugu ibilbide horretan, hots, kometak egitetik hiriko baratzeak abiarazteraino. Bost lan-urte izan dira, finean, eta hitzordu bat sortzea lortu dute lortu dutenez, arte garaikidearen Euskal panoraman.

INMERSIONES, gaur egun, hazteko baliabide gehien behar dituen eszena sortzaile gazteenari arreta eskaintzen dion ekimen bakarra da Araban.

Azken bost urte honetan ikusi dugu nola erori den instituzio publikoek sare ahul honi eta, oro har, gure lurraldeko kultur ekoizpeneko egitura osoari ematen zioten arreta. Ikusi dugu, halaber, mamirik gabeko proiektu handien mendean dagoen kultur politika mota baten goren aldia, bai eta gainbehera ere; proiektu horien kezka nagusia halako marka bat sustatzea izan baita edota konfiantza industrial sortzea, eta, inola ere ez sarea, entzuleak, pentsamendua... sortzea.

Egun, gure kultur ekosistema itolarrian dago, horrelako politikek eta beldurraren ekonomiak ekarritako doikuntza itogarrien ondorioz, eta agerian dago ez dagoela inolako ikuspegi historikorik.

Argitalpen honetan labur azaldu nahi izan dugu proiektuak azken urteotan egindako ibilbidearen laburpen bat; artxibo txiki bat, ibilbide horren balioa nabarmentzeko.

INMERSIONES ekimenaren edizio bakoitza azkena izan daiteke eta, oraingo honetan gauza bera gertatuko da, berehalakoan ez badago apustu tinko bat, behintzat, oinarritzko arte eta kultur sarearen alde. Ezer gutxi balio dute gure hiriko arte zentroek eta erakusketa areto dotore askoek, ez badugu zuzeneko harreman-biderik sortzen sortzaileekiko eta ez badugu ikusle-entzule berririk sortzen. Murritzeten aurrean, gauza bakarra geratzen zaigu: hots, kultur hazkundea sustatzea, eta, harekin batera, hezkuntza, arte sentiberatasuna eta sen kritikoa.

INMERSIONES_2012ko talde eragileak, argitalpen honen bitartez, dei bat egin nahi

die Euskal Herriko erakundeei honelako proiektuen beharra aintzat har dezaten. Baina, era berean, dei egin nahi diogu arteari eta kulturari lotuta dagoen jendeari, behin betiko abiatu dadin artearen eta kulturaren baliabide publikoen aldeko jarrera argia.

Inmersiones-ek ekimen bat izaten jarraitu nahi du, zertarako eta jarrerak, erantzunak eta energiak egituratzeko.

INTRO_INMERSIONES_2012

INMERSIONES se ha convertido con el tiempo en un observatorio artístico, en un mecanismo deslocalizado, en una iniciativa rotatoria y cambiante, que vive y sobrevive muy de cerca la situación contextual de la cultura y de sus políticas.

En 2012 llegamos a la quinta edición de INMERSIONES, cinco años en los que hemos visto pasar a más de 250 artistas, en los

que hemos producido exposiciones y editado varias publicaciones, cinco años en los que hemos escuchado a los creadores y propiciado su contacto; en los que se ha hecho desde cometas hasta poner en marcha huertos urbanos. Cinco años de trabajo que han conseguido crear una cita en el panorama vasco del arte contemporáneo.

INMERSIONES es hoy por hoy la única iniciativa en Araba que presta atención a la escena creativa más joven y más necesitada de resortes para su crecimiento.

En estos cinco últimos años hemos visto desmoronarse la atención de lo público, no solo a este frágil tejido, sino a toda la estructura de la producción cultural de nuestro territorio. Hemos visto el auge y la caída de un tipo de política cultural sometida a grandes proyectos vacíos de contenido y más preocupados por promocionar una marca o por generar confianza industrial que por generar tejido, audiencias, pensamiento...

Hoy, nuestro actual ecosistema cultural se asfixia entre los desajustes de este tipo de políticas y la economía del miedo, haciéndose patente una tremenda falta de perspectiva histórica.

En la presente publicación hemos querido ofrecer un breve resumen de la trayectoria del proyecto durante estos últimos años, un pequeño archivo que venga a poner en valor su recorrido.

Cada edición de INMERSIONES puede ser la última y lo mismo sucederá esta vez si no se da una decidida y urgente apuesta por el apoyo al tejido artístico y cultural de base. De poco valen los centros de arte y las flamantes salas de exposiciones de nuestra ciudad si no creamos una línea directa con los creadores, con las creadoras y con la creación de nuevos públicos. Frente a los recortes lo único que nos queda es estimular el crecimiento cultural, la educación, la sensibilidad artística y el espíritu crítico.

La intención del grupo motor de INMERSIONES_2012 es lanzar a través de esta publicación una llamada a las instituciones de Euskal Herria para que tomen en consideración la necesidad de este tipo de proyectos. Pero también queremos lanzar una llamada a la comunidad vinculada al arte y a la cultura para que active definitivamente un posicionamiento claro en defensa de los resortes (frente a los recortes) públicos del arte y de la cultura.

Inmersiones quiere seguir siendo una plataforma para articular posicionamientos, respuestas y energías.



Peio Izcue. Hospitalarios 2012. Zuloa Irudia.



Juan Carlos Arango. Congreso Inmersiones 2012 Biltzarra. Berakah.



Kongresuari buruzko marrazkiak, Enrique Floresek egin zituen. Enrique Flores ilustró el Congreso Inmersiones 2012.

Inmersiones 2008

Iñaki Larrimbe-ren testua. Bereziki "Inmersiones 2008" katalogorako idatzia.

Hiria, espazio publikoa eta gizarteko harremanen ehuna astiro, baina pixkanaka-pixkanaka indartzen ari dira, zentzua galtzen ari dira desintegrazioarantz aurrera eginez. Egoera horren aurrean beharrezkoa da zentzua, ezagutza eraikitze-ko beharrezko prozesuak gauzatu ahal izateko tokiak ahalbidetzea, izan ere, prozesuok beste horiek sustatzen dituzte, espazio horiei eskerrak daude. Eta, halaber, premiazkoa da eredu berriak sortzea —edo oinordetzan harturikoak eguneratzea— hirian jadanik dauden prozesuak indartu eta ikusgai egiten dituzten hurbiltasuneko kultura politikak babestuz eta sortuz. Zentzu horretan arteari eta kulturari zuzenduriko espazio publikoak herritarrei gure "ondare materiala" erakusteko bakarrik ez dira izan behar, hirian garatzen den "ondare ez-materiala" ere erakutsi behar duten gailuak izan behar dira. Kultura jardueraren labaingarri gisa ere funtzionatubehardute, gure inguruan etengabe sortzen diren eta ikuspegi gabeziak ezkutatzuten dituen prozesu kulturelei arreta jarritz. Espazio publikoek, azken finean, kultura sortzeko balio dezakete, elkartzeko tokietan eratuz, kultura eragileen eta hiritarren artean osmosia, teilakatzea eratzen den tokietan. Espazio publikoek taldeko sorkuntza, pentsamendu kritikoa, gizarteko eta kulturako "militantzia" sustatu behar dute; ezberdintasuna, dibergentzia dena sustatuz, ikuskizun hutsaletik, oroitzapenezko ospakizunetik eta errentagarritasun politikotik (irakurri "alderdikoa") edo ekonomikotik aldenduz. Labur esanda: artea eta kultura gizartearen emaitza dira, gizarte osoarena da eta ez banakotasun batzuen ondarea. Gizartea eta kultura termino erantsiak dira, ondorioz. Errealitate bera- ren zatiak. Bietako bat defendatuz bestea elikatzen dugu.

Defendatzearen logika horretatik sorturiko gailua da "Murgiltzeak". Erabilgarritasuna lortu nahi du. Ez gaitu gertaera mediatiko baten antzera liluratu nahi. Bere helburua arte eta kultura prozesu hurbilak erakustea da, nahiz eta "urpean" egon Oinarritzko helburua, beraz, hurbileko ekoizpen artistikoa ikusgai egiteko horren mapaketa egitea da, gestoria publikoen eta hiritarren beharrezko "murgiltzea" eraginez, "gainazalaren azpian" dauden jardute garaikideen egituraren barruan.

"Murgiltzeak" deialdiak, azken batean, jarduera mukurua izan nahi du, gutxi gorabehera eraginkorrak direnak. Urpean dagoen ehun kulturetik sorturiko "borborra". Sekulakoa edo ñimiñoa den "borborra". Osatzen duen materia kopuruaren araberakoa izango da.

Texto de Iñaki Larrimbe para el catálogo de "Inmersiones 2008".

La ciudad, el espacio público y el tejido de relaciones sociales lenta, pero progresivamente, se atomizan, se vacían de sentido avanzando hacia su desintegración. Ante ese panorama es preciso habilitar lugares desde los que poder ejercitar los necesarios procesos de construcción de conocimiento, de sentido. Y es urgente, asimismo, crear nuevos modelos —o actualizar los heredados— apoyando y creando políticas culturales de cercanía que refuercen y hagan visibles los procesos ya existentes en la ciudad. En ese sentido los espacios públicos dedicados al arte y a la cultura deben de ser dispositivos que no sólo sirvan para mostrar a la ciudadanía nuestro "patrimonio material" sino que deben mostrar también ese "patrimonio inmaterial" que se gesta en la ciudad. Deben funcionar como lubricante de la actividad cultural, estando atentos a esos procesos culturales que se producen sin cesar a nuestro alrededor y que la falta de perspectiva esconde. Los espacios públicos pueden servir, en definitiva, para crear cultura, constituyéndose en lugares de encuentro, lugares en los que se establezca una ósmosis, una imbricación, entre los agentes culturales y la ciudadanía. Los espacios públicos deben fomentar la creación colectiva, el pensamiento crítico, la "militancia" social y cultural; impulsando la diferencia, lo divergente, huyendo del espectáculo banal, de la celebración conmemorativa y de la rentabilidad política (léase "partidista") o económica. En definitiva: el arte y la cultura son productos de la sociedad, de toda la sociedad y no patrimonio de algunas individualidades. Sociedad y cultura son términos anejos, por tanto. Partes de una misma realidad. Sustentando una de ellas, alimentamos la otra.

"Inmersiones" es un dispositivo creado desde esa lógica del sustento. Persigue la utilidad. No quiere deslumbrarnos cual evento mediático. Su propósito es mostrar esos procesos de arte y cultura próximos, aunque "sumergidos". Su objetivo fundamental, por lo tanto, es mapear la producción artística cercana para hacerla visible, propiciando la necesaria "inmersión" de las gestorías públicas, y la ciudadanía, en el entramado de las prácticas contemporáneas que están "bajo la superficie".

"Inmersiones", en definitiva, quiere ser un cúmulo de actividades, más o menos efectivas. Un "borbotón" que surge del sumergido tejido cultural. Un "borbotón" colosal o minúsculo. Dependerá de la cantidad de materia que lo conforme.



Dossier erakusketa. Exposición de dossieres. Sala América Aretoa. 2008



Congreso Inmersiones 2008 Biltzarra. Sala América Aretoa.



Congreso Inmersiones 2008 Biltzarra. Sala América Aretoa.

GALDUTAKO ZERBAITEN BILA

(Chill out version)

Arturo / fito Rodríguez-ren testua. Bereziki “Inmersiones 2008” katalogorako idatzia.

Prentsan irakur zitekeen “Murgiltzeak” deialdiaren kroniketako baten izenburuak honela zioen: “Galdutako zerbaiten bila”. Artikuluak Amárica aretoa berriz zabaltzean ezarrita geratu zen espazioaren eta denboraren arteko loturaren berri eman zuen, tokiko artistek parte hartu duten proiektu baten esparruan. Artikulu horretan esandako moduan, egia da lotura gertatu dela eta lotura hori gertatu den kultura testuingurua funtsean laurogeigarren hamarkadakoa ez bezalakoa dela; ikuspegi horrek, izan ere, gure lurraldeko kultura politiken garapenaren inguruan modu adierazgarrian hitz egin du. Baina modu horretako ikuspuntua beharrezkoa izanez gero, egokia litzateke baita ere “Murgiltzeak” deialdiaren proposamen zehatza bertako esperientziari, gertaerari (beharbada ikuspuntu hunkigarriagotik), eta leku eta inguruabar jakinean duen esanahiaren antzemateari arreta jarritz behatzea.

Zentzu horretan, deialdia abian jartzeak sortu dituen gorabeherak, erakusketen espazioa elkartzeko espazio gisa berreskuratzeak eta leku horrek egoerak sortzeko eskaini duen aukerak, errealtate sortzailearekin duen muntaia berriagatik, ikuskeren, kontakizunen eta istorio txikien iturria osatzen dute; horrek artistak konektatzen diren harremanen sarean geruza berri bat sortu du.

Beti daude beste ikuspegi batzuk, beti daude alderdi berriak eta susmatu ere egiten ez genituen ikuspuntuak. Pertsona bakar batek eman ditzakeen begirada ezberdinak, nahiz eta kontraesankorrak izan, elkarrekin trukatu, erkatu eta gure oroimenean geratzeko eraldatzen diren datuak osatzen dituzte. Bilera hark sortu zuen giroaren deskribapenak eta oroitzapenak esanahiz beteriko xehetasunak izan daitezke. Norbaitentzat hutsalak izan zitezkeen uneak beste batzuentzat gogoangarriak izan ziren. Partekaturiko esperientzia batetik abiatuta sorturiko kontakizunen ehun aberats hori “Murgiltzeak” deialdiak egungo eremu artistikoko harremanen egiturari egindako ekarpenetako bat da. Oihartzunen pilaketa horrek sorturiko ahozko istorioak xehetasunetan aberatsa den nebulosa baten forma hartu du, aretoaren izena berekin darabana, baina etiketa berri batekin.

Nahiz eta egungo gure garai politikoko (“postpolitika” esango luke norbaitek) ezaugarri bat espazio publikoaren desagertapenaren eta ahalmen gailuek entzuleak sortzearen bidez “ohikoaren” pixkanakako desgitea beharbada gaiaren oinarria izan, azpimarratu behar da ekimenean ez dela espazioa bakarrik berriz asmatu, baizik eta publiko aktiboa eta parte-hartzailea ere.

Espazio hori berriz asmatzeak aretoko nolabaiteko inmanentzia harmonizatu du, zalantzarik gabe tokiko memorian mito bihurturikoa, proiektu bat begi bistakoa egiteko, eta proiektu horrek kulturen parte hartzeko forma berriei eta ehun sortzailean murgiltzeko forma berriei dagokienez berekin dakarren guztia ere. Lekua “berriz kalifikatzean” dago lorpenik handienetako bat: txanda hartzen jakin izana, eraginkortasun sinbolikoa eguneratuz eta egun beharrezkoa dena arriskatzuz, erraza, nahikoa edo nostalgikoa delako aurreikusteko modukoa izan daitekeenaz haratago. Lehenengo jarduerak topaketari eta harremanei protagonismoa eman izana artearentzako espazio publikoa eguneratzeko modurik egokiena da.

Publikoa kulturaren industria makinek eragin gabe sortu da, eta hasiera-hasieratik proiektua bultzatzen duen masa kritikoa osatu du; hori izan da ekimen honen eta aurki etorriko direnen beste laguntza handia.

Hala, emozio, oroitzapen, politika eta nebulosen artean, murgiltzeak urperatutako paisaiaren kronika atsegin gaingaitzen du artearen eta gizartearen, sorkuntzaren eta araudiaren, kulturaren eta erakundearen arteko harremanen konplexutasunean igeri egiteko. Ezin litzateke beste modu batekoa izan “Murgiltzeak” deialdiaren proposamenak estalirik dagoena desestaltzea helburu bazuen, ikuspena emateko. Eta ezin litzateke beste modu batekoa izan, gainazalera atera behar dena oraindik gauzak guk egin nahi ditugun moduan egiteko gai izatearen ziurtasuna bada.



Sleepwalk Collective. Inmersiones 2008.

EN BUSCA DE ALGO PERDIDO

(Chill out version)

Texto de Arturo / fito Rodríguez para el catálogo de “Inmersiones 2008”.

Una de las crónicas de “Inmersiones” que se pudo leer en prensa llevaba como título “En busca de algo perdido”. El artículo daba cuenta del nexo espacio - temporal que quedaba establecido al reabrirse la Sala Amárica en el marco de un proyecto en el que artistas locales han tomado parte. Es cierto, como se comentaba en dicho artículo, que ese vínculo ha tenido lugar y que el contexto cultural en el que se inscribe es sustancialmente distinto de aquel que se daba en los años ochenta; no en vano esa visión nos habla muy elocuentemente sobre el desarrollo de las políticas culturales en nuestro territorio. Pero si este tipo de enfoque resulta necesario, parecería igualmente oportuno observar la propuesta específica de “Inmersiones” con una mirada que atendiera a la experiencia en sí misma, al suceso (quizá desde un enfoque más emotivo), y al reconocimiento de su significado en un lugar y en una circunstancia concreta.

En este sentido, los avatares que ha generado su puesta en marcha, la recuperación del espacio de exposiciones (ahora Amárica) como espacio de encuentro y la posibilidad que ha ofrecido éste para la creación de situaciones, constituye, por su fresco ensamblaje con la realidad creativa, toda una fuente de visiones, relatos y microhistorias que ha creado ya una nueva capa en la red de relaciones a la que se conectan los y las artistas.

Siempre hay otras perspectivas, siempre hay facetas nuevas y enfoques que ni siquiera intuíamos. Las distintas miradas que una sola persona puede aportar, aún siendo contradictorias, constituyen datos que se intercambian, se confrontan y se transforman para quedar en nuestra memoria. Las descripciones y los recuerdos del ambiente que generó aquella reunión pueden ser detalles cargados de significado. Momentos que para alguien pudieron ser fútiles para otros fueron memorables. Este rico tejido de relatos creados a partir de una experiencia compartida es una de las aportaciones de “Inmersiones” al entramado de relaciones del ámbito artístico actual. La historia oral generada por este cúmulo de resonancias ha cobrado la forma de una nebulosa rica en matices que viaja ya unida al nombre de la sala Amárica, pero con una etiqueta nueva.

Aunque quizá lo fundamental del asunto es que si una característica de nuestro tiempo político actual (“postpolítica” diría alguien) es la disolución progresiva de “lo común” a través de la desaparición del espacio público y de la creación de audiencias por los dispositivos de poder, se hace preciso

subrayar que en esta iniciativa no sólo se ha reinventado un espacio, sino que se le ha dotado de un público activo y partícipe.

La reinención de este espacio ha pasado por armonizar cierta inmanencia de la sala, sin duda mitificada en la memoria local, con la necesidad de hacer visible un proyecto y todo lo que conlleva en cuanto a nuevas formas de participación en la cultura y nuevas formas de inmersión en el tejido creativo. En esta “recalificación” del lugar reside uno de sus más evidentes logros: haber sabido tomar el relevo, actualizando su eficacia simbólica y apostando por el riesgo de lo que hoy es necesario, más allá de lo que sería fácil, suficiente o previsible por nostálgico. El hecho de que la primera actividad haya cedido protagonismo al encuentro y al intercambio es la mejor manera de actualizar este espacio público para el arte.

La creación de un público no inducido por la maquinaria industrial de la cultura, sino que ha conformado desde el primer momento una masa crítica que sustenta el proyecto, ha sido el otro gran apoyo de esta iniciativa y de las que tengan que venir próximamente.

Así, entre emociones, memorias, políticas y nebulosas, la inmersión trasciende la crónica amable del paisaje sumergido para bucear en la complejidad de las relaciones entre arte y sociedad, entre creación y normativa, entre cultura e institución. No podía ser de otra manera si la propuesta de “Inmersiones” trataba de descubrir lo que está oculto para darle visibilidad. Y no podía ser de otra manera si lo que hay que sacar a la superficie es la certeza de que todavía somos capaces de hacer las cosas como queremos hacerlas.



Sala Amárica Aretoa 2008.

Inmersiones 2009 Inmersiones 2010



Iñigo Beristain. Congreso Inmersiones 2009 Biltzarra. Sala América Aretoa.

POSIBILITATEAZ

Izaskun Álvarez-ren testua. Bereziki "Inmersiones 2009" katalogorako idatzia.

Inmersiones 08 erabat hunkigarria izan zen, hala dut gogoan. Aurreko edizioan artista gisa hartu nuen parte eta hainbat gauza egiteko aukera izan nuen; beste kideen lanak ikusi, ideiak, proiektua, esperientziak... trukatu, etab. Zirrargarria izan zen eta energia asko sortu zuen nigan, egiten jarraitzeko gogo handia. Horregatik, Inmersiones 09ko komisario izatea erronka handia da. Iaz oso goian jarri zuten muga eta iazkoa hobetzea oso konplexua iruditzen zitzaidan.

Edizio berria nire artista eta diseinatzaile ikuspegitik sortzea interesgarria izan zitekeela pentsatu nuen, hau da, diseinuaren testuingurutik ukitu bat eman mundu artistikoari eta alderantziz. Bi metodologia desberdin uztartu, proiektuak eta sareak ikuspegi aberatsagoarekin sortzeko, bieta-tik jasotakotik sortzeko.

Askotan ikusten dugu erakusketak egiten direla eta katalogoak editatzen direla. Horretarako ahalegin ekonomiko eta giza ahalegin handiak behar izaten dira, eta gai hauen guztien arazoa ondoren hedatzea da, proiektua jaioberritan hiltzen da. Inmersiones 09 honen ideia pertsona horien guztien lana zabaltzea da, hilabeteetan, eta kasu batzuetan urteetan, eratzen joan den lana zabaltzea.

Katalogo honetan Inmersiones 09an egin-dako jarduera guztiak daude, baina bere xede nagusia 30 artista hauen lana erakustea da eta hori guztia Espainiako Estatuan eta Portugalen zabaltzeko baliagarria izatea. 2010eko urtarrilean Inmersiones 09k bira bat egingo du eta horren bidez lanerako sareak sortu nahi ditugu, baita ideiak eta proiektuak trukatu ere.

Edizio honetan parte hartu duzuen artista guztioi mila esker zuen begirada ekarri izanagatik.

DE LA POSIBILIDAD

Texto de Izaskun Álvarez para el catálogo de "Inmersiones 2009".

Inmersiones 08 lo recuerdo como algo realmente emocionante. Participé como artista en la edición pasada, en un foro donde pude ver el trabajo de otras/os compañeras/os, intercambiar ideas, proyectos, experiencias, etc. Fue algo emotivo que generó en mí mucha energía, muchas ganas de seguir haciendo. Es por ello que el comisariado de Inmersiones 09 se me presentó como un gran reto. El listón del año pasado estaba realmente alto y mejorar eso me parecía muy complejo.

Pensé que podría tener interés generar una nueva edición desde mi mirada como artista y diseñadora, es decir: aportando al mundo artístico una pincelada del contexto del diseño y viceversa. Poner en común dos metodologías distintas para generar proyectos y redes con una mirada enriquecida, que bebe de ambos.

Muchas veces vemos cómo se producen exposiciones, se editan catálogos, y se hacen grandes esfuerzos económicos y humanos para todo ello, y el problema de todas estas cuestiones es su posterior difusión, cuando el proyecto acaba de nacer, ya ha muerto. La idea de Inmersiones 09 es precisamente poder difundir el trabajo de todas estas personas, que se ha ido gestando durante meses, y en algunos casos, durante años.

Este catálogo reúne todas las actividades realizadas en Inmersiones 09, pero sobre todo se centra en mostrar el trabajo de estas/os 30 artistas y que sirva para poder difundir todo ello por el estado español y Portugal. En enero de 2010 se realiza el tour de Inmersiones 09, y con ello esperamos poder empezar a crear redes de trabajo e intercambio de ideas y proyectos.

A todas/os las/os artistas participantes en esta edición muchas gracias por aportarnos sus miradas.

Rubén Díaz de Corcuera-ren testua. Bereziki "Inmersiones 2010" katalogorako idatzia.

Kultur urperaketaren inguruko hitzordu berria Gasteizen, gure kanpo eta barneko kostaldeetako ezkutuko izaki ezezagunekin topatzeko. Ikus arteetako ekosisteman ezagutzeke dauden bizidun eta mota askotako izaki berriekin topo egiteko aukera. Landa lanak (edo kasu honetan itsas lanak) egiten ari diren arrain jaioberri eta arraroak, iktiiofiloak eta iktiologoak biltzeko asmoa duen biltzar xumea.

Topaketaren testuinguru intelektuala areagotu nahi izan dugu Inmersiones 2010 honetan. Horretarako, kritikari eta teorialari ospetsu eta hasiberriekin bilduko ditugu artistak. Artistak gai horretan murgiltzera animatuko ditugu. Biltzarraren garapena eta testu ekoizpenerako formatu berrietako partaidetza aldi berean egingo dira. Arteari buruzko irakurketa eta idazketarako giro aproposa sortuko dugu eta erakusketa ukiezina dagoen lekuan bertan ideien trukaketarako giro aproposa ere bai, trukaketa horri esker sortu beharko bailitzateke erakusketa ukiezin hori.

Inmersiones 2010 galdera hauetako batzuk erantzuten saiatu da. Nola sortu kultur ehuna eta, aldi berean, giro kritikoa? Nola hobetu eta zabaldu tokiko praktika artistikoaren testuinguru intelektuala? Nola interesatu publiko kultura hainbeste esperientzia singular, eta aldi berean, gertukotan? Nola interesatu artistak edota teorikoak gertuen dituzten kideetan? Nola interesatu artean idazlerik eta filosoforik gertukoenak? Nola sustatu artistei autohausnarketa kritikoa eta kritikariei artistekiko distantzia teorikoa laburtu? Nola eragin artean, tokiko pentsamenduaren bidez, unibertsalaren probintzia hori? Nola kontzertatu kultur politika esperientzia estetikoaren eta pentsamenduzkoaren eskaintzari? Nola sortu, nola biderkatu arteari buruz eta arte-tik egiten den pentsamenduaren merkataritza hiri honetan, garai honetan? Nola egin hirikideen gertuko, norbere burua traizionatu gabe? Nola utzi artista loreontzi izateari, hiritar artista bezala bizitza publikoan eta, batez ere, kultur politiketan eragin eraginkorra izateko?

Texto de Rubén Díaz de Corcuera para el catálogo de "Inmersiones 2010".

Nueva cita de submarinismo cultural en Vitoria-Gasteiz al encuentro de los más ocultos e ignotos ejemplares de nuestras costas exteriores e interiores. Nueva oportunidad de encuentro con toda clase de criaturas inéditas, habitantes por descubrir del ecosistema de las Artes Visuales. Pequeño congreso que pretendía reunir peces neonatos y/o extraños con público ictiófilo y con ictiólogos haciendo trabajo de campo (o de mar en este caso).

En Inmersiones 2010 se trató de incrementar el contexto intelectual del encuentro reuniendo a los artistas con críticos y teóricos consolidados e incipientes. Estimulando la incursión en este terreno de los propios artistas. Simultaneando el desarrollo del congreso a la participación en nuevos formatos de producción de texto. Generando, en definitiva, un ambiente propicio a la lectura y a la escritura sobre arte, al intercambio de pensamiento en el mismo sitio de una exposición intangible que se debía construir, si acaso, con los frutos de tal intercambio.

Inmersiones 2010 intentó dar alguna respuesta a algunas de las siguientes cuestiones. ¿Cómo crear tejido cultural y, a la vez, atmósfera crítica? ¿Cómo mejorar y ampliar el contexto intelectual de la práctica artística local? ¿Cómo interesar al público culto en tantas experiencias singulares y, sin embargo, próximas? ¿Cómo interesar a los artistas y/o teóricos en sus colegas más cercanos? ¿Cómo interesar en el arte a los escritores y filósofos más próximos? ¿Cómo incitar a los artistas a la auto-reflexión crítica y a los críticos a acortar la distancia teórica con los artistas? ¿Cómo influir en el arte a través del pensamiento local, esa provincia de lo universal? ¿Cómo concertar alguna política cultural a la oferta propia de experiencia estética y de pensamiento? ¿Cómo crear, cómo multiplicar el comercio de pensamiento sobre el arte y desde el arte, en esta ciudad, en esta época? ¿Cómo hacerse cercanos a los conciudadanos, sin traicionarse? ¿Cómo abandonar la condición de artista florero para incidir eficazmente como ciudadanos artistas en la vida pública y sobre todo en las políticas culturales?



Mery Cuesta. Congreso Inmersiones 2010 Biltzarra. Sala América Aretoa.

Inmersiones 2011

EKOKULTURA

Iñaki Larrimbe. *Diario de Noticias-en argitara emana, 2011ko azaroaren 18an.*

Gaur arratsaldean, Amárika aretoan, hainbat sortzaile eta diseinatzaile elkartuko dira, urtetan erakusketa-esparru honetan pilatu izan diren errotuluak, kartelak eta bestelako materialak birziklatzeko. Jende horren asmoa da material hori moldatzea, zertarako eta datorren larunbatean Amárika aretoan abiatuko den jarduera batean erabiltzeko: "Inmersiones".

Birziklapenaren kontu horrek behin eta berriz erabilitako kontua iduri lezake, baina pixka bat pentsatzen badugu, badu bere mamia. Jarduera horren bidez, izan ere, kontu funtsezko bat adierazi nahi dugu, kulturak gaur egungo garaiotan bizirik iraun dezan: kulturaren iraunkortasuna, alegia. Eta egia da, zeren ez baitugu dirutza handirik gastatu behar proiektu bat abiarazteko. Ez kultur gune handirik, ezta kultura departamendu handirik ere. Urteotan, Amárika Asanbladak lezio ederra eman digu horretaz guztiaz. Baina, bitxia bada ere, harena izanik ere proiekturik iraun-korrena eta parte-hartzaileena, kolpe batez desagerrarazi egin du egungo Kultura Diputatuak.

Ezgaitezen bestelako adarretansartu, ordea, eta jarrai dezagun "Inmersiones" honetaz hizketan. Aurtén, Inmersiones ekimeneko gaia "Ekokultura" da. Propio ekimen honetarako sortu den hitza da, eta helburu orokorra da "hazi" sorta eder bat Amárika aretoan ereitea, fruitua eman dezaten; nolako fruituak, ordea? Ba, artearen eta naturaren inguruko jarduketak, guztiak ere Gasteizen garatzeko modukoak, eta ekosistema naturalen eta kulturalen artean loturak egitea. Asteburu honetan, adibidez, edonor etor daiteke Amárika aretora, la-guntza-lan bat taxutzeko.

Horri forma emateko, "Inmersiones" ekimeneko "talde eragileak" deialdi bat plazaratu zuen orain dela egun batzuk, hots: *Inmersiones 2011, zehazki, ekokulturari eskainia dago eta, haren baitan, Inmersiones-ko talde eragileak herritar orori dei egiten die beren maskota begetalak ekar ditzaten, azaroaren 19an eta 20an, Amárika aretora. Lan kolektibo bat erakikiko dugu bakoitzak ekartzen duenarekin: ekosistema natural txiki bat, zaindu eta ureztatu beharrekkoa. Hori ere denon artean, gaixotu ez dadin. Jarduerari izen hau eman diogu: "Maskota begetalen baratz".* Eta horrek ere badu bere mamia. Zeren mahai gainean jartzen baitu, modu zertxobait metaforiko batez, gu guztiontzako funtsezko garrantzia duen kontu bat: hots, kultura, sormena eta artea gizartearen emaitza direla. Denok baitugu zer ekarria kulturara, edo gure ekarpena egin dezakegu. Bestela esanda: inork libururik irakurriko ez balu, edo inork ere artelanik ikusiko ez balu, ez legoke kulturarik.

Eta Amárika aretoan, jadanik beste jarduera batzuk ere abiarazita daude, hala nola artista-biltzar bat; txosten erakusketa bat; hiriko baratzeeen mapak; sinadura bilketa bat, instituzioek erosketa ekologikoak egin ditzaten.... Aurtengo "Inmersiones" ekimena, ez alferrik, landare bat bezalakoa baita, egunak joan ahala hazi egingo dena. Funtsezkoa da, ordea, herritarrek aipatu landarea ureztatzea. Nola? Parte hartuz, alegia.



Ekokulturala den baratzari buruz irudiak. Miriam Isasi-k antolatuta. Inmersiones 2011. Irudiak del taller "huerto ecocultural" organizado por Miriam Isasi. Inmersiones 2011.

ECOCULTURA

Iñaki Larrimbe. *Publicado en el Diario de Noticias el 18 de Noviembre de 2011.*

Hoy a la tarde, en la sala Amárika, una serie de creadores, diseñadores se reúnen para reciclar los rótulos, carteles y otros materiales que se han ido acumulando durante estos años en este espacio expositivo. Y la idea que tienen al juntarse es la de adaptar ese material para que sea empleado en una actividad que arranca el sábado en la sala Amárika: "Inmersiones".

Puede parecer ésta, la del reciclaje, una idea un poco manida pero si nos paramos a pensar un poco, tiene su miga. Porque con dicha actividad se está hablando de algo que en los tiempos que corren es fundamental para la supervivencia de la cultura: su sostenibilidad. De verdad que



no hay que gastarse grandes sumas de dinero para poner en marcha un proyecto. Ni grandes centros culturales, ni grandes departamentos de cultura. Durante estos años la Asamblea Amárika nos ha dado una lección sobre ello. Pero curiosamente, siendo el suyo el proyecto más sostenible, más participativo, la actual Diputada de Cultura lo ha borrado del mapa de un plumazo.

Pero no nos desviemos y prosigamos hablando de este "Inmersiones". Este año el tema de Inmersiones es la "Ecocultura". Un término acuñado para la ocasión que tiene como objetivo central "sembrar" en

la sala Amárika un repertorio de posibles "semillas" que fructifiquen en futuras actuaciones en torno al arte y la naturaleza que puedan ser desarrolladas en Vitoria-Gasteiz, trazando conexiones entre ecosistemas naturales y culturales. Y así, por ejemplo, durante este fin de semana cualquier ciudadana o ciudadano puede acercarse a la sala Amárika para pergeñar una obra colaborativa.

Para darle forma, desde el "grupo motor" de "Inmersiones" se lanzó hace unos días una convocatoria que rezaba así: *En el marco de la filosofía de "Inmersiones 2011" dedicado a la "ecocultura", desde el grupo motor de "Inmersiones" convocamos a los ciudadan@s a traer a la sala Amárika, durante los días 19 y 20 de noviembre, sus "mascotas vegetales". Con la suma de estas aportaciones individuales construiremos una obra colectiva: un pequeño ecosistema natural que hay que cuidar, regar. También entre tod@s para que no enferme. La actividad tiene por nombre "Vergel de mascotas vegetales".* Y también tiene su intrínquilis. Pues pone sobre la mesa, de manera un tanto metafórica, un asunto de vital importancia para todos nosotros: que la cultura, la creación, el arte, son producto de la sociedad. Pues todos aportamos, o podemos aportar, algo al fenómeno cultural. Me explico: si nadie leyese un libro o nadie mirase una obra de arte, la cultura no existiría.

Un congreso de artistas, una exposición de dosieres, un mapeo de huertos urbanos, una recogida de firmas para que las instituciones realicen compras ecológicas... son también algunas de las otras actividades que ya están en marcha en la sala Amárika, pues este "Inmersiones" es como una planta que irá creciendo conforme pasen los días. Pero es fundamental que el ciudadano riegue dicha planta. ¿Cómo? Participando.



Congreso Inmersiones 2011 Biltzarra. Sala Amárika Aretoa.

Dossier Erakusketa

Talde eragileak 22 dossier hautatu zituen. Lan haiek lotuta zeuden deialdian planteatutako gaiarekin. Formak eta formulak, baita aurkezpenerako lanabesak, artista bakoitzak bere lana helarazteko dossier-en bidez erakusten du eta horretan ahalbidetzen bilduma ere bada. Dossier-en erakusketa interesgarria izan zen ildo horretatik, hau da, sormenari buruzko dokumentu bilduma baita. Zenbait kasutan, ordea, bereziki prestatuak izan dira honetarako. Adibidez, artistak egindako lanak horretarako dira, eta hor ikusten dira, noski, haien metodologiak eta dauzkaten kezkak. Estilo eta modu ezberdinetako aniztasuna dago dossier-ak fokatzeko, eta horretan egileek badaukate beren ekarpena. Aurkezpenerako moduak eta komunikatzeko estiloak sormen-lanerako moduak izateaz gain, ikerketa artistikoa ezagutu ahal izateko ere bideak badira.

El equipo motor seleccionó 22 dossiers cuyo trabajo estaba relacionado en mayor o menor medida con el tema de la convocatoria. Las formas, las fórmulas y las herramientas de presentación que utiliza cada artista para transmitir su proceso de trabajo a través de los dossiers, componen en esta exposición todo un catálogo de posibilidades. La exposición de dossiers resulta ser un interesante banco documental de la creación más actual. En algunos casos han sido realizados expresamente para esta cita pero en otros casos se refleja el trabajo continuado de los artistas, sus metodologías y sus inquietudes. La variedad de estilos y de maneras de enfocar la realización de un dossier artístico pasa por ser otro modo de acercamiento a los autores y autoras. Los métodos de presentación y la manera de abordar la comunicación del trabajo creativo es también un modo de conocer el ámbito de la investigación artística.



AUKERATUTAKO ARTISTAK

ARTISTAS SELECCIONAD*S

Ainhoa Ortells / Ana Nieto / Ant Espacio / Bruno Ibañez / "Político - Poético" / Diego Vivanco / Elvira Palazuelos / Fermín Díez de Ulzurrun / Ibai León / Juan Ibarrondo / Marta Gil / Ibon Garagarza / Irantzu Lekue / Karlos Martínez B. / Laura Marchante / Miriam Isasi / Pau Figueres / Peio Izcue / Rafa Munarriz / Robert Waters / Taxio Ardanaz / Unai Requejo / Fco. Javier Ramos

"Hospitalarios" 2012

Aukeratutako artistari Zuloa Irudia esparrua egunbeterako utziko zaio. Artista zuzenean mintzatuko da bisitariekin, eta bere dossier-rak edo lanak (edozein formatutakoak) erakusteko aukera izango du, eta Zuloa esparrua izango du eskura bere proiektuak nahi bezala eta egun osoan erakusteko.

Inmersiones-eko talde eragileak konpromisoa hartzen du aretora Euskal Herriko hainbat kultur eragile eramateko, eta lan horiek eta egileak ezagutzeko egiazko interesa duen jendea ere bai.

"Hospitalarios" consiste en la cesión de un día entero del espacio "Zuloa Irudia" a el/la artista seleccionadx. El/la artista establece un diálogo directo con los visitantes, teniendo la posibilidad de enseñar sus dossiers o sus trabajos (en cualquier formato) y disponiendo del espacio de Zuloa para desplegar sus proyectos como crea conveniente y durante toda la jornada.

El grupo motor de Inmersiones se compromete a llevar a la sala a distintos agentes culturales del País Vasco y a público realmente interesado para que conozcan estos trabajos y a sus autorxs.



Josune Martinez de Albeniz, Ander Gillenea.



Gregorio Sánchez.



Peio Izcue.

Josune eta Ander, 15/11/12

Hospitalarios-ko lehen aurkezpena Josune Martinez de Albenizen eta Ander Gillenearen eskutik iritsi zen Zuloa espaziora, eta guztiz bat etorri zen Inmersiones_2012ko edizio honetako gaiarekin.

Josunek eta Anderrek euskal gatazkari buruz duten argazki-artxibo ikusgarria ekarri ziguten. Irudiek sekuentzia aberats eta hunkigarria osatzen dute Euskal Herrian iragan berri den historiari buruz. Beharbada, irudi-sekuentzia bat: gizarte eta politika gaiei buruzko prentsa-argazkiak dira, oraindik ere geure begietan biziegi dauden kontuak dira eta, egia esan, ezinezkoa da ikusle huts gisa ikustea. Une horiek ikusita, izan ere, ohartzen gara, inplikazio handiagorekin edo txikiagorekin, eta, esparru mental desberdinetatik, denok dar-dar egin dugula, sumindu edo hunkitu egin garela; lerro baten bestaldean dauden uneak dira, muga baten bestaldean, zeinean den-denok hasi behar dugun geure burua ikusten. Horra hor Josune eta Ander hona ekartzeko arrazoi nagusietako bat, hots, gertatutakoaz pentsatzen eta hura onartzen hasteko premia izugarria, kontraera bat besteari inposa ez dakion, historia bakarra egon ez dadin. Prentsa-argazkia bitarteko ezin hobea da hedabideen ustezko objektibotasunaz eta subjektibotasun artistikoaz gogoeta egiteko.

Laurogeita hamarreko hamarkadako lehen urteetatik gaur egunerainoko irudiak dira eta, haietan, ezinbestean ageri den ikuspegi soziologikoaz gain, bestelakoak ere ageri dira, hala nola argazki-kazetaritzaren lan militantea, haren begirada zorrotza eta ohi duen nonahikotasuna.

Miguel Ángel Blancoren heriotza, Etxerat-en Giralduen ekintza Sevillan, zapalketa politikoa, atentatuak, mobilizazioak, manifestazioak, adierazpenak... eromenezko jardura, herstura eta larritasuna.

Anderrek eta Josunek era askotan paratu dituzte beren irudiak Zuloan, eta horri esker, haien lana oso irisgarria izan da: estatuko edo nazioarteko egunkari-azalak mosaikoan; gai zehatzei buruzko erreportajeak; hainbat argitalpenetarako egindako argazkiak; ordenagailuko irudiak, etab. Anderrek eta Josunek Zuloara iritsi den jendea hartu dute, beren ibilbidea, pasadizoak, lan-metodoa... azaltzeko; haien bizitza kontatu digute..., jende abegitsu zoragarriak izan dira...

www.gillenea.com

La primera presentación de "Hospitalarios" a cargo de Josune Martinez de Albeniz y Ander Gillenea llegó al espacio Zuloa en perfecta sintonía con la temática de esta edición de Inmersiones_2012.

Josune y Ander nos acercaron su impresionante archivo fotográfico sobre el conflicto vasco. Imágenes que componen una secuencia rica e impactante de la historia reciente de Euskal Herria. Quizá una secuencia de imágenes: fotos de prensa de temática social y política, que todavía está demasiado presente en nuestras retinas como para verlas como meros espectadores/es. Se trata de momentos en los que, con mayor o menor implicación y desde distintos espacios mentales, hemos temblado, nos hemos indignado o sobrecogido; momentos que están al otro lado de una línea, de una muga en la que tenemos que comenzar a reconocernos todos y todas. Este es uno de los principales motivos para tener aquí a Josune y a Ander, la urgente necesidad de comenzar a pensar y a encajar lo que ha pasado, sin que un relato se imponga a otro, sin que haya una única historia. La foto de prensa nos ofrece un magnífico ámbito de especulación sobre la supuesta objetividad de los medios y la subjetividad artística.

Se trata de imágenes que van desde los primeros años noventa hasta nuestros días y en las que encontramos, además de la inevitable perspectiva sociológica, el trabajo militante del fotoperiodismo, su mirada afilada y su proverbial ubicuidad.

La muerte de Miguel Ángel Blanco, la acción de "Etxerat" de las Giralduas en Sevilla, la represión política, atentados, movilizaciones, manifestaciones, declaraciones... la actividad frenética, la ansiedad y la zozobra.

Ander y Josune han desplegado en Zuloa sus imágenes de muy diversa forma, lo que ha hecho muy accesible su trabajo. Portadas de diarios estatales o internacionales en mosaico; reportajes sobre temas concretos, colaboraciones en distintas publicaciones, imágenes en el ordenador, etc. Ander y Josune han recibido a la gente que ha llegado a Zuloa y han explicado su trayectoria, sus anécdotas, su método de trabajo... nos han contado su vida... , han sido unos magníficos hospitalarios...

www.gillenea.com



Peio Izcue, 16/11/12

Argazkiaren munduan hezia, Peio Izkuek Zuloara ekarri digun proiektua osotara etorri da bat Inmersiones_2012ko gaiarekin. Kasu honetan, ordea, sarbidea ez da zuzeneko izan; izan ere, bakearekin (BAKEA gai gisa) topo egin dugu, boterearen azpian dagoen indarkeriazko sistemarekin talka egiten duen tokian.

Egia da orain arte Peio, funtsean, argazkigintzan aritu dela, Nafarroako Huarte Zentroan eta azkenaldiko erakusketetan ikusi den bezala; baina Gasteizera ekarri digun proiektua (Tina) askoz ere harago doa. Horrela, besapean ekarri duen proiektuaren forma hedatuak ideia sendo bat dauka oinarri, eta hainbat forma hartzen ditu: argazkia, ariketa piktorkoa, irudiaren tratamendua, ikerketa... Bada, lan-geruza horiek guztiek elkar osatzen dutenean bakarrik hartzen du zentzua bere proposamenak. Proposamenaren ikuspegi global batetik bakarrik uler daiteke bere tramankulu artistikoari, bere ikerketari, bere esperimentuari darion kritika fina, bai eta bistaratze garrantza ere. Peiok berak dioen bezala:

“70eko hamarkadaren bukaeran, Margaret Thatcher boterera iritsi zen eta Britainia Handian iraultza neoliberalak bultzatu zuen. Oso ezaguna zen, zeren bere programa hitz bakar batekin justifikatzen baitzuen, TINA: “There is no Alternative”.

Orduez geroztik, neoliberalismoak bere tresna guztiak erabili ditu lelo hori sustraitzeko eta helburuak erdiesteko, betiere haren ikuspegitik “bake sozial arrazoigarria” esaten ahal zaionaren baitan.

Horrenbestez, bere margolanak itxuraz naif badira ere, paradisu fiskal nabarmenenak promozionatzeko irudiak dira (batere anekdotikoak ez direnak). Herrialde horiek berek beren buruaz eskaintzen dituzten irudiak dira, dela turismo-foiletoetan, dela Interneten. Itxuraz amateurak diren olio-pintura txiki horiek bere osoan hartuta, irudi bakar bat dira: diruzalekeriaren babesleku helezina, paradisu fiskal baten irudia (ideia gisa), zeinaren azpian gure garaiak duen sistemaren gainbehera ezkututzen baita. Bere ikerketaren ondoriozko beste irtenbide formal batean, pertsona boteretsuenen irudien aurpegi metatuak ikusten ditugu, eta diruzalekeria horren gaineko erretratua osatzen dute; mamu-itxura dute, eta horrek berez salatzen digu mundu horren ilunkeria eta, era berean, salatzen digu egilea saiatzen ari dela irudi horiek eta aurpegi ezkutu horiek itzaletik erauzten. Haien sinaduratan ere ezagutzen ditugu, dokumentu batean erakusten baitira, eragiketa, tratatu, kontratu eta makroekonomiari eusten dioten gainerako agiri gehienak berresten dituen testu ikaragarri bat balitz bezala.

Azkenik, Peiok egindako estereogramek panorama horren guztiaren deskribapena jartzen digute sudurren aurrean. Ez da erraza estereogramak ikustea, aurkitu egin behar baitira. Egiazko pertzepzio-ariketa bat da, eta erabat da konparagarria guk gaurkotasanaren aurrean erakusten dugun jarrerarekin. Gure sudurren aurrean daukagu, baina aldaketa txiki bat behar da, kontzentrazio-une bat edo erabateko ihesbide bat, dena argi eta garbi ikusteko gauza izan gaitezen...

Eta askoz ere gehiago dago kontatzeko, bere proposamenak hari-mutur asko dituelako, guztiak ere beharrezkoak. Peioren erakusketa labor eta bizia, egia esan, trinkoa da eta, artearen bidez abileziak kokatzen gaitu gure sudurren aurrean daukagunaren aitzinean.

Formado en el mundo de la fotografía, Peio Izcue nos ha traído hasta Zuloa un proyecto perfectamente ajustado al tema de Inmersiones_2012. Pero en este caso el acceso no es directo, nos encontramos con la paz (la PAZ como tema) allí donde entra en colisión con el sistema violento del poder.

Si bien el trabajo que ha desarrollado Peio hasta ahora ha sido fundamentalmente fotográfico, como ha podido verse en el Centro Huarte de Nafarroa y sus recientes exposiciones, el proyecto que nos trae hasta Gasteiz, “Tina”, va mucho más allá. Su forma expandida de proyecto parte de una idea fuerte para cobrar diferentes formas: fotografía, ejercicio pictórico, tratamiento de la imagen, investigación... Solo desde el acoplamiento de todas estas capas de trabajo, su propuesta cobra sentido. Solo desde una visión global de la propuesta puede entenderse la fina crítica y la mordaz visualización que destila su artilugio artístico, su investigación, su experimento. Como cuenta él mismo:

“A finales de los años 70, Margaret Thatcher llegó al poder y lanzó la revolución neoliberal en Gran Bretaña. Era muy conocida por justificar su programa con una sola palabra, TINA: “There is no Alternative”.

Desde entonces el neoliberalismo ha utilizado todas sus armas para afianzar este lema y conseguir sus objetivos, dentro de lo que desde su punto de vista se puede denominar como una “razonable paz social”.

De modo que los cuadros aparentemente naif, resultan ser las imágenes promocionales (y nada anecdóticas) de los paraísos fiscales más destacados. Se trata de las imágenes que los propios países ofrecen de ellos mismos en folletos turísticos y en Internet. El conjunto de estas pequeñas pinturas al óleo, de apariencia amateur, pasa a convertirse en una sola imagen: el refugio inalcanzable de la avaricia económica, la imagen de un paraíso fiscal (como idea) bajo el cual se esconde la decadencia sistémica de nuestro tiempo.

En otra solución formal de su investigación vemos los rostros amontonados de las figuras más influyentes del poder formando un retrato de esa avaricia; su apariencia espectral habla por sí sola de la opacidad de ese mundo y del intento del autor por extraer de la sombra estas imágenes, estos rostros ocultos. También los reconocemos en sus firmas, que se muestran en un documento como si se tratase de un texto terrible que rubrica la mayor parte de las transacciones, tratados, contratos y demás documentos en los que se sostiene la macroeconomía.

Finalmente, los estereogramas realizados por Peio nos ponen delante de las narices la descripción de todo este panorama. No resulta fácil verlos, hay que descubrirlos. Es todo un ejercicio perceptivo perfectamente comparable a nuestra actitud ante la actualidad. Lo tenemos delante de nuestras narices, pero hace falta un pequeño cambio, un momento de concentración o de evasión total para que seamos capaces de verlo todo claro...

Y muchas más cosas que contar porque su propuesta permite muchas y necesarias derivas. La expo breve e intensa de Peio Izcue es compacta y nos sitúa hábilmente a través del arte ante lo que tenemos delante de nuestras narices.



Gregorio Sánchez, 22/11/12

“Ciudadano Cero”

“Artea = bizia” ideia, egia esan, ildo, estilo eta proposamen sorta ederraren araua izan da, baina (beti bezala) delako ildo, estilo eta proposamenak, azkenean, gure gizartearen “estetitazio orokorreko” kide izatera pasatu ziren. Ideia hori bera, bestalde, hain iradokigarria eta itxuraz hain emantzipatzailea, zentzuz hustu zen eta, horren ondorioz, artearen fikzio-izaera berresten lagundu zuen.

Gregorio Sánchezen aurkezpenean “Ciudadano Cero” ezagutzeko parada izan genuen, eta, hain zuzen ere, pertsonen, izenen eta herritarren arteko nahasmendu horretan aurkitzen dugun artearen eta bizitzaren arteko identifikazioa ez dago ez presio estetikoaren mendean, ez fikzioaren engainuaren mendean.

Gregoriok Zuloan bere koadernoak erakutsi zituen, non haren bizipenak eta kontakizunak marrazkiaz baliatzen baitira; ez dago ilustraziorik, baizik eta irudien eta esperientzien arteko nahasmendu berariazko bat. Era berean, idazkiak, paperak eta gauzakiak ekarri zituzten, eta gelan barreiatu zituen; hura, egia esan, bere sortze moldearen, bere pentsamendu latzaren eta mundua ulertzeko duen moduaren laburpena izan zen. Errotulagailuz idatzitako kontsignak zekartzaten paper-poltsak, kamisetentzako hitzak, gauzakiak, sendagaiak, arropa erabilia, kartoiak, olio-pintura “interbenitu” bat, dena ur-jauzi baten antzera zerbitzatua, bera den bezalakoa, bere diskurtsoa den bezalakoa... Bere buruarekin hizketan ageri zaigun bideoa nolabait da artista gisa eta izaki sozial gisa gauzak zailentzen jartzeko jarreraren akta performatikoa. Bere konfrontazio-bideoa sormen-jardueraren beraren itxura eskizofrenikoa da. Gregoriok ez du artista gisa agertu behar inoren aurrean; horregatik agertzen da bideoan harriarriki modu naturalean. Bera ez baita bere irudia (edo bai?); bera ez da bere izaera (edo bai?), berak ez du bere burua interpretatzeko jokoan aritu nahi (edo bai?). Gregoriok Zuloan emandako hitzaldia “Ciudadano cero” lanaren aurkezpena izan zen.

Bere predikuan, bere txirotasunaren gaineko kontaera egin zuen, eta kontatu, halaber, nola dagoen erabateko kolokatasunean, eta hipokresia sozialari kritika zorrotza egin zion (kontsumismoari, diruzalekeriari, norberekeriari...); haren hitzek, finean, bizitzan egoteko modu bat hurbildu ziguten, zenbaitetan ikusezin edota urrun egiten zaiguna, edo zuzenean saihesten duguna. “Ciudadano cero” lanaren aurkezpenak Inmersiones_2012ko gaiaren aurre-aurrean kokatu gintuen, gordinki kokatu gintuen sormen-ahalmenaren aurrean, eta, aldi berean, artearen ezintasunaren aurrean. Ez dago bakeaz mintzatzerik hitza kendu dietenekin hitz egin gabe; ez zaigu ulergarri egiten, ez horixe, sistema honekin lagun giroan ari den artea, zeren sistemaren logika bakarra indarkeria sozialaren forma askotarikoak baitira.



“Ciudadano Cero”

La idea de “arte = vida” ha servido de máxima a todo un catálogo de corrientes, estilos y propuestas que acabaron (como siempre) participando de la “estetización generalizada” de nuestra sociedad. Por otro lado, esa misma idea, tan sugerente y aparentemente emancipadora, se vació de sentido y contribuyó a afirmar el carácter ficcional del arte.

En la presentación de Gregorio Sánchez pudimos conocer a “Ciudadano Cero”, y es precisamente en esta confusión de personas, nombres y ciudadanos en donde encontramos un ejemplo de identificación entre arte y vida que no se somete a la presión estética ni a la impostura de la ficción.

Gregorio mostró en Zuloa sus cuadernos, en donde sus vivencias y relatos se sirven del dibujo; no hay ilustraciones, sino deliberado desconcierto de imágenes y experiencias. Nos trajo también escritos, papeles y objetos que diseminó por la sala como un compendio de lo que es su modo de creación, su pensamiento áspero y su forma de entender el mundo. Bolsas de papel con consignas escritas con rotulador, leyendas para camisetas, objetos, medicamentos, ropas usadas, cartones, un óleo “intervenido”, todo servido como en catarata, como es él, como es su discurso... El vídeo en el que le vemos hablando consigo mismo es de algún modo el acta performativa de su cuestionamiento como artista y como ser social. Su vídeo-confrontación es la apariencia esquizofrénica de la propia actividad creativa. Gregorio no tiene que mostrarse como artista ante nadie, por eso, accede al vídeo de un modo tan asombrosamente natural. Él no es su imagen (o sí?), él no es su forma de ser (o sí?), él no juega interpretarse a sí mismo (o sí?).

La conferencia de Gregorio en Zuloa fue la presentación efectiva de “Ciudadano cero”. En su speech, el relato de su indigencia, de su situación de completa precariedad y su afilada crítica a la hipocresía social (consumismo, avaricia, egoísmo...), nos acercó un modo de estar en la vida que a veces se nos hace invisible, ajeno o que directamente evitamos. La presentación de “Ciudadano cero” nos situó frontalmente ante el tema de Inmersiones_2012, nos situó crudamente ante la potencia creativa y, a la vez, ante la impotencia del arte. No podemos hablar de paz sin hablar con los que no tienen la palabra porque se les ha negado; no podemos entender un arte cómplice de un sistema cuya lógica no es otra que las múltiples formas de la violencia social.



Mawatres, 23/11/12

Banderak oihal puska soilak badira ere, sinbologiaz zaturik daude, eta zama hori gauza da emozioei eragiteko, kontzientziak astintzeko, atxikimenduak eta gorrotoak pizteko... Banderak lurraldea zedarritzeko tresna bat izaten jarraitzen du, bakerako ikur bat, bai eta gerrarako ere, eta hala denez gero, arteak ez du alde batera uzterik izan sinbologiaz, magnetismoz eta boterez beteriko karga hori, irudia den aldetik.

Banderaren oihala plastiko bihurtzen bada, oihala plastiko beltzez egindako zabor-poltsa bat bada, eta masta erratz-kirten hutsa bada, hizkuntza-operazio sotil bat gertatzen da, zeinean adierazitakoa, adierazlea eta irudia boltaje politiko handiko turmix ideologiko batean sartzen baitira. Klik soil eta zehatz batek pizten du turmixa, eta emaitza, egia esan, eraginkorra da harrigarriki. Zeren, prozesu horrek halako dohain bat baitauka, zertarako eta bitartekoen ekonomia zentzuaren ekonomiarekin lotzeko, eta hainbat gauza ekartzen ditu: aberastasun bisuala, kritika instituzionala, parte-hartzea, subertsioa, intsumisioa eta ironia fina. Mawatres aspaldian hasia da lan hau lantzen eta bereziki egokia izan da Inmersiones_2012n gurekin izatea. Bere proposamena mintzo zaigu ikurrek atxikirik daramatzaten bakeaz eta gerraz, irudien botereaz, eta irudiek duten ahalmenaz beste alderdi garrantzitsuago batzuk zentzuz husteko. Bandera, jakina, identitatea izan daiteke, baina afirmazio-prozesu horretan bertan beste identitate batzuk ezabatzen ditu ezinbestean. Bandera zabor-poltsa bat dela esatea ideia sendoa da, mila norabidetan irekitzen dena, milioika toki desberdineira iristeko (fisikoak eta mentalak).

Mawak halako nahasketa bat egin du Zuloan, zeren bere proposamena erakustez gain, bandera-tailer bat ere egin baitu, eta tailer horren bidez geure ikurra bera sortzen ikasi dugu, behin-behinekoa eta iragankorra izan arren, larritasunik batere ez duena, gatazka orotatik kanpo dagoena. Zabor-poltsek, hau da, kolore guztietan merkatuan eskura dauden zabor-poltsek, eta erratz-kirtenek, gure estandarte sortzeko aukera eman digute, ezertara ere behartzen ez gaituen estandarte, ezertara ere ez, pentsatzera baizik ez, eta gure inguruan daudenekin sormen-une bat partekatzera baizik ez.

Las banderas son simples trozos de tela, sin embargo, su carga simbólica es capaz de agitar las emociones, remover las conciencias, despertar adhesiones y odios... La bandera sigue siendo un elemento de demarcación territorial, un icono para la paz y para la batalla, de modo que el arte nunca pudo inhibirse de toda esta carga de simbología, de magnetismo y del poder en cuanto imagen.

Si la tela de la bandera se convierte en plástico, si la tela es una bolsa de basura de plástico negro, y el mástil no es más que un palo de escoba, tiene lugar una sutil operación lingüística en la que el significado, el significante y la imagen entran en una túrmix ideológica de alto voltaje político. Un click escueto y preciso acciona la túrmix y el resultado es de una eficacia asombrosa. Porque en realidad, todo este proceso tiene la virtud de vincular la economía de medios a la economía del sentido, proporcionando además riqueza visual, crítica institucional, participación, subversión, insumisión y fina ironía. Mawatres lleva trabajando este tema desde hace tiempo y ha sido especialmente apropiado tenerlo en Inmersiones_2012. Su propuesta nos habla de la paz y de la violencia que llevan adscritos los símbolos, nos habla del poder de las imágenes y de su capacidad para evacuar de sentido otros aspectos más importantes. La bandera puede ser identidad, pero inevitablemente sustrae otras identidades en ese mismo proceso de afirmación. Decir que la bandera es una bolsa de basura, es una idea fuerte que se abre en mil direcciones para llegar a millones de sitios diferentes (físicos y mentales).

Mawa ha hecho en Zuloa una mezcla de exposición de su propuesta y de taller de banderas con el que hemos aprendido a crear nuestra propia enseña, aunque sea temporal, transitoria, desprovista de toda gravedad, ajena a cualquier conflicto. Las bolsas de basura, disponibles en el mercado en todos los colores, y los palos de escoba nos han proporcionado la posibilidad de crear nuestro estandarte, un estandarte que no nos obliga a nada, absolutamente a nada, solamente a pensar y a compartir con las y los presentes un momento de creación.



Juan Ibarroondo + Marta Gil, 29/11/12

Hospitalarios-ko formulari esker, ziklo edo programa hau bere dibertsitatearen argitan ikus edo balora deza-kegu. Eta dibertsitatea, egia esan, formatu hau baliagarri, eraginkor eta beharrezko egiten duen aberastasuna da.

Marta Gilen eta Juan Ibarroondoren proposamenak jokoa-areto bihurtu du Zuloa, egongela (jostatzen aritzekoa), zeinean egiazko helburua bilera eta trukaketa baitira; eta esperientzia arrakastatsua izan da benetan.

Juan eta Martak, proiektu honen bitartez, arte bisua-len, kultur ikerketaren, literaturaren eta esperientzia ludikoaren artean darabilten lankidetzat hori alde askota-tik begira da atsegingarria. Artearen mundu garaikidean "harremanezkoa" esan izan zaion horrek irtenbide espon-taneo bat dauka hemen, abiapuntua ez baita arte "kode-tuaren" esparru bat, museoan edo galerian gertatzen den bezala, bestelakoa baizik: hots, liburutegi baten lurpeko leku hau espazio okupatu bat da edo halakotzat ulertzen da, propio okupatu den espazio bat aldi honetarako, es-perientzia honetarako, ekintza honetarako.

Martak eta Juanek mahai-joko bat diseinatu dute, "Bakeari buruzko gezur-detektagailu bat", eta jokoak ederki eraisten ditu, era adimentsuz eta jostagarri des-muntatu ere, bakeari buruzko mitoak eta topikoak; horra hor, beraz, Inmersiones_2012ko gaia. Gogoeta egitera gonbit egiten digute, galdera-erantzunen joko horren bi-dez: zer da bakea? Zer esanahi praktikoa du? Baina oinarri batetik abiatzen da: bakea gerrarik ezaz haratago doa. Bakea ez da gauza barren hutsa edo absentsia, egiazko edukiaz beteriko zerbait baizik. Jokoan hainbat kontu elkartuta daude. Batetik, kontzeptu plastikoa grafikoki moldatua dago; hau da, badago laukiz osaturiko ibilbide bat bakearen ikurrean barrena, eta ibilbide hori egin be-harra dago. Taulan lasterbideak, komodinak eta koloreak antolatuta daude, galderei aurre egiteko eta jokoan aurrera egiteko. Bestetik, galderak izenez, mugarriz, le-kuz eta gertakari osaturik daude, ikerlan handi bat eginga baitago, eta guztiak ere aproposak dira kontzeptu labain-kor eta konplexu horri buruz, bakeari buruz, dakigunaz eta erdizka baino ez dakigunaz jabetu gaitzen.

Hitz batez, irtenbide plastikoari esker eta proposamen teoriko argigarriari esker, jokoak azkarra, hezigarria eta jos-tagarria da. Horra hor aukera-aukerako osagaiak denbora puska eder bat primeran pasatzeko...

Hara iritsitako jende asko aritu zen txandaka joko-ma-haian; ez zegoen lehiarik, parte-hartzeko gogoia eta giro lasaia baizik. Zuloa joko-areto bihurtu baitzen, aisialdirako eremu. Martak eta Juanek, gainera, beren proiektuaren osagai gisa, bakeari eta gizarte-mugimenduei buruzko bibliografia-aukera bikaina ekarri zuten Zuloaraino; en-trenalekurik onena, zalantzarik gabe, jokoari ekiteko. Egiazko murgilketa Inmersiones-ko gaian.

La fórmula de Hospitalarios nos permite ver y valorar este ciclo o programa desde su diversidad, entendiendo esta característica como una riqueza que hace válido, eficaz y necesario este formato.


La propuesta de Marta Gil y Juan Ibarroondo ha transfor-mado Zuloa en una sala de juegos, en un salón de estar (de estar jugando) en el que la reunión y el intercambio son el verdadero objetivo, un objetivo que concluye como experiencia exitosa.

La colaboración entre artes visuales, investigación cultu-ral, literatura y experiencia lúdica que llevan a cabo Juan y Marta a través de este proyecto resulta gratificante en muchos aspectos. Eso que en el mundo del arte contem-poráneo se ha denominado "relacional", tiene aquí una solución espontánea porque no cuenta de partida con un espacio del arte "codificado", como ocurre con el museo o la galería, sino que este espacio subterráneo de una librería es o se entiende como un espacio okupado para esta ocasión, para esta experiencia, para esta acción.

Marta y Juan han diseñado un juego de mesa, un "Detec-tor de mentiras sobre la paz", que de manera inteligente y divertida desmonta mitos y tópicos sobre la paz, el tema de Inmersiones_2012. El juego de preguntas y respuestas invita a reflexionar sobre qué es la paz y sobre su signifi-cado práctico partiendo de la base de que la paz es algo más que la ausencia de guerra. La paz no se entiende como vacío o ausencia, sino como algo lleno de conteni-do real. En el juego se dan cita varias cuestiones. Por un lado, el concepto plástico se resuelve gráficamente con un recorrido por el símbolo de la paz en base a casillas que hay que ir recorriendo; tajos, comodines y colores se organizan en el tablero para afrontar las preguntas e ir completando el juego. Por otro lado, todo un trabajo de investigación sobre hitos, nombres, fechas, lugares, y acontecimientos componen el repertorio de preguntas, verdadera lección sobre lo que se sabe y sobre lo que no se sabe alrededor de este concepto siempre resbaladizo y complejo que es la paz.

De modo que la excelente solución plástica y la ilustrativa propuesta teórica permiten que el juego sea rápido, edu-cativo y divertido. Todos los elementos que predisponen a pasar un buen rato...

Pasó por allí mucha gente que se fue turnando en la mesa de juego, no había competencia, sino participación y dis-tensión: Zuloa se transformaba en un salón de juego, en zona de esparcimiento. Marta y Juan trajeron además hasta Zuloa, como parte de su proyecto, una exquisita selección bibliográfica sobre la paz y sobre movimientos sociales, sin duda el mejor lugar de entrenamiento para integrarse posteriormente en el juego. Verdadera inmer-sión en el tema de Inmersiones.



Ainhoa Ortells, 30/11/12

“Freedom Of Speech 2.0”

Ainhoak Zuloa lantegi bihurtu zuen; horrela, bisitarien eta/edo parte-hartzaileen adierazpen librea abiapuntu egokia izan zen, tratu, trukaketa eta paradoxa sorta ederrera. Ainhoa Ortellsen horma-espazio bat eskaini zuen Zuloan, hainbat sektoretan zatitutako taula bat, edonork bere esaldia, bere pentsamendua, idatzirik utz zezan. Hortik aurrera, artistak billete bat eskatzen zuen (euroak), mezu hori taulan “finkatzeko”; artistak berak billetea hartu eta hartan bertan pertsona parte-hartzailearen erretratua egiten zuen (artetik esateko, harrizterainoko abilezia eta teknika zainduaz). Billete hori, une horretantxe, bisitariaren esaldia idatzia zegoen sektorea estaltzera pasatzen zen: bisitariaren irudiak, billetean zegoen irudiak, bisitariaren mezua bera estaltzen zuen. Horra, beraz, jokoa agerian; adierazpen askatasuna ekonomiaren joko gaiztoan sartzen baitzen, mintzo denaren irudia haren mezuari inposatzen zaio. Jokoak jarraitzen du eta txinpartaka hasten da, ez baitu irtenbiderik, krisia baizik, adierazpen-askatasunarekin berarekin gertatzen den bezala, gure gizartearekin gertatzen den bezala, zeinean irudiaren tirania eta diruaren tirania batera ageri baitira, zertarako eta “sistema” esaten zaion gauza horri forma emateko. Errealitatea kapitalismoarekin eta bere irudiarekin nahastenean, artea shock egoeran sartzen da, eta Ainhoak ez dio inguruabar horri ihes egiten.

Ariketa soil eta konplexu horren bidez, Ainhoak arakutzen du zer puntutaraino erabiltzen den egiazki adierazpen-askatasun hori, edo zer modutan dagoen ustezko askatasun hori gure gizartearen nagusi diren tentsio ekonomikoaren mendean. Ainhoaren proposamena sare sozialen eta bere webgunearen bidez bultzatu zen: www.ainhoaortells.com

Getxoko artistak, beraz, transakzioaren ideia tenkatu egin du, transakzio informatiboa eta sentikorra transakzio ekonomikoaren aurrean jarri baitu. Ba al du preziorik leku horrek eskaini digun adierazpiderako? Zer prezio du egiazki? Ainhoak hortxe jarraitzen du galdera horiei erantzun nahian, baina bitartean, jendea erraztasun harrigarri erretratatzeko dihardu eta mundu guztiarekin mintzatzen da bere proposamenaz.

Azken oharra. Bazen transakzio ekonomikoarekiko talka hori saihesteko modu bat: dantzatzu. Aukera eskaintzen baitzen “Gangnam Style” bideo-kamera baten aurrean dantzatzeko, mezua “askatasunez” kartulina batean erakutsi bidenabar. Nork ematen du gehiago?

“Freedom Of Speech 2.0”

Ainhoa konbirtió el espacio Zuloa en un taller en el que la expresión libre de las/los visitantes y/o participantes era el punto de partida para toda una serie de tratos, intercambios y paradojas. Ainhoa Ortells ofreció en Zuloa un espacio mural, un tablero dividido en varios sectores en el que cualquiera podía dejar escrita su frase, su pensamiento. A partir de ahí, la artista solicitaba un billete (euros) para “fijar” ese mensaje en el tablero, un billete que ella misma intervenía retratando a esa persona participante en el billete (por cierto, con asombrosa habilidad y cuidada técnica). El billete intervenido pasaría en ese momento a tapar el sector en el que estaba escrita la frase del/la visitante: su imagen en el billete tapaba su propio mensaje. El juego estaba así servido, la libertad de expresión entraba en el juego perverso de la economía, la imagen de quien habla se impone sobre lo que dice. El juego continúa y comienza a echar chispas porque no tiene solución, sino crisis, como sucede con la propia libertad de expresión, como sucede con nuestra sociedad, en la que coinciden la tiranía de la imagen y la tiranía del dinero para dar forma a eso que se denomina “sistema”. Cuando la realidad se confunde con el capitalismo y con su imagen el arte entra en una situación de shock, y Ainhoa no rehúye esta circunstancia.

Este ejercicio simple y complejo lleva a Ainhoa a explorar hasta qué punto esa libertad de expresión se ejerce realmente o de qué modo esa supuesta libertad está sometida a las tensiones económicas que dominan nuestra sociedad. La propuesta de Ainhoa se impulsó a través de las redes sociales y de su propia página web: www.ainhoaortells.com

De modo que la artista de Getxo ha tensionado la idea de transacción poniendo la transacción informativa y sensible frente a la transacción económica. ¿Tiene precio ese lugar para la expresión que nos ha servido?, ¿cuál es su verdadero precio? Ainhoa sigue intentando resolver estas preguntas, pero mientras retrata a la gente con una facilidad asombrosa y habla con todo el mundo sobre su propuesta.

Un apunte más. Había una manera de evitar ese enfrentamiento con la transacción económica: bailando. Se ofrecía la posibilidad de bailar “Gangnam Style” frente a su cámara de vídeo mostrando el mensaje “libremente” en una cartulina. ¿Quién da más?



Biltzarra/Congreso, 15/12/12

INMERSIONES 2012

Artisten eta kultur eragileen biltzarra

Artistak, kolektiboak, sortzaileak, ikertzaileak eta bitartekariak

Abenduak 15 / 15 proposamen / 15 minutu

Talde eragileak hamabost egile hautatu zituen, denak "Inmersiones 2012" gaiarekin lotuta. Egile hauek egin zuten beren lanaren aurkezpen publikoa, zein egitasmoak zituzten ikus-artearen edozein formatuan landu ahal izateko, performance-ak edo antzekoak. Eta bakoitzak hamabost minutuko aurkezpena egin zuen.

ESPACIO BERAKAH ESPAZIOA

ABENDUAK 15 - 15 DICIEMBRE
C/Las Escuelas, 2 - Vitoria-Gasteiz

MARRAZKIAK/ILUSTRACIONES: Enrique Flores


INMERSIONES 2012

Congreso de artistas y agentes culturales

Artistas, colectivos, creador*s, investigador*s y mediador*s

15 de Diciembre / 15 propuestas / 15 minutos

El equipo motor seleccionó quince agentes con trabajos relacionados con la temática de "Inmersiones 2012". Dichos agentes hicieron una presentación pública de sus proyectos: artes visuales en cualquier formato, performances, acciones, etc., con un tiempo máximo de presentación de 15 minutos.



Irantzu Lekue

Irantzu gatazkaren ideiaz mintzatu zitzaigun, ikuspegi oso ezberdinen mendean dagoen ideia baita, hala nola norberaren ikuspegia, gizarte-ikuspegia, artearena, eta gatazka berez.


Jendeak tentsio-egoeran, mendekotasunean edo zalantzan dagoenean izaten dituen arazoetan, egintzetan eta ondorioetan jarri du arreta Irantzuren lanak. Egileak, zehazki, hainbat kontu izan ditu aztergai: tratu txarrak, gaixotasunak berekin dakarren ezegonkortasuna, eta mendekotasunean egoteak pertsonari dakarkion gatazka. Lekuek, hartara, instalazioa erabili du, instalazioak aukera ematen baitio bere argazki-lanak eta ikus-entzunezkoak agertzeko, "Se hace camino al andar" izenburukoan bezalaxe. "Arando el conflicto", berriz, ekintza bideografikoa da. "Mientras hay vida" izenekoan, azkenik, gaixotasunean sortzen diren sentimenduak eta barne-gatazka aztertzen dira...

Lekuek ikus-entzunezkoen kontagintza du abiaburu, baina abstrakzioaraino iristen da, materiaren kalitateak ikertzen ditu, eta sentiberatasunak bizirik irautea proposatzen du bitartekoen edo tekniken aurrean.

Irantzu nos habló de la idea de conflicto, una idea sometida a muy diferentes perspectivas, desde lo personal hasta lo social pasando por el arte como conflicto en sí.

Su trabajo ha estado enfocado hacia aquellos problemas, actos y consecuencias que sufren las personas cuando se encuentran en una situación de tensión, de sometimiento o de duda. El tema del maltrato, de la inestabilidad psíquica y del conflicto personal que se sufre al estar sometido a algo o a alguien, son su objeto de análisis. Para ello, Lekue utiliza la instalación como una posibilidad en la que volcar sus trabajos fotográficos y audiovisuales, como sucede en "Se hace camino al andar". "Arando el conflicto", otra de sus propuestas, es una acción videográfica. "Mientras hay vida" analiza los sentimientos que se generan durante la enfermedad, otra forma de conflicto interior.

Lekue parte de la narrativa audiovisual pero llega hasta la abstracción, investiga las calidades de la materia y propone la pervivencia de la sensibilidad ante los medios o las técnicas que se utilizan para su formalización.



Juan Carlos Arango

Juan Carlos lana kalean sozializatzeari mintzatu zitzaigun, bere graffiti-lanak abiapuntu harturik. Arango, Medellín-etik dator, Kolonbiatik, eta "Esto no es un Botero" izenburua eman zion hitzaldiari. Boteroren Bake-usoen kasua aipatu zuen (haietako bat lehergailu batek leherrarazia) eta nola Santos presidentegiaren 1984ko hauteskunde-kanpainak bake-usoak margotzea proposatu zuen, herri-ekintza gisa.

Hara zer dioen bere hitzaldi hasierak:

"...Barthes parafraseatuz, esan genezake graffiti ez dela testu bat (trace), betiereko hitzaldi bat baizik (tracing); ez produktu bat, iraunkorki berez ekoizten den zerbaiz baizik; ekintza errepikatzea da, konpulsiboa zenbaitetan, eta kutsagarria beti, eta hartan bildua dago haren indarra eta xarma."

Juan Carlosek espekulazio teorikoaren arlora eramaten du graffiti eta etengabe batzen da praktikarekin. Mafiosoaren irudi estereotipatua baliagarri zaio, boterea karkaturizatzeko eta horrelako pertsonaia mafiosoak politikan daudela salatzen, alde guztietako politika orotan. Arangoren azken hitza da denok daramagula tirano bat geure barnean.

Irudiak ugari erabili zituen, eta hura aipuz eta lanekin harilkatutako testuz beteriko errepertorioa izan zen (Botero, Banksy...); horrenbestez, harena hitzaldi ilustratua izan zen.

Juan Carlos nos habló de la socialización de la obra de arte en la calle, en el espacio público, partiendo de su práctica del graffiti. Arango, que viene de Medellín, Colombia, presentó su intervención bajo el título "Esto no es un Botero". Citó el caso de las palomas de la Paz de Botero (una de ellas reventada por efecto de una bomba) y nos habló de cómo la campaña presidencial de Santos en 1984 proponía pintar palomas de la paz como acción ciudadana.

En el comienzo de su ponencia comentaba:

"...Parafraseando a Barthes, podríamos decir que el graffiti no es un texto (trace), sino un sempiterno discurso (tracing), no es un producto, sino un perenne producirse, es en la repetición de la acción, compulsiva algunas veces y contagiosa en todos los casos, donde se alberga su fuerza y encanto."

Juan Carlos lleva el graffiti a un terreno de especulación teórica que se funde constantemente con la práctica. La imagen estereotipada del mafioso le sirve para caricaturizar el poder y denunciar la presencia de estos personajes mafiosos en la política, en todas las políticas de todas partes. Arango concluye que todos llevamos un tirano en el interior, llevando de alguna manera esa crítica al espacio de la autoría artística.

La profusión de imágenes y su repertorio explosionado de citas y textos perfectamente hilvanados con obras artísticas (desde Botero hasta Banksy), hicieron de su presentación toda una conferencia ilustrada para el disfrute de la concurrencia.



MALALECHE TIENE
UNA DUALIDAD BIEN/MAL
FLICKR.COM/MALKWASAKY
FACEBOOK.COM/MALALECHE

LA PAZ ES LA INSIÓN
QUE CREA EL
ESTABLECIMIENTO
PARA QUE CONFÍEN
EN EL

PINTO
MAFIOSOS
COMO
IMAGEN
DEL PODER

EL GRAFFITI
ES COMUNICA
CIÓN DEL
INDIVIDUO
FRENTE A
LA MASA



Elvira Palazuelos

Elviraren lanaren lagin bat da, funtsean marrazkian, ilustrazioan, edizioan... mamitzen dena. "Los poetas" tintaz paper gainean egindako marrazki-bilduma bat da, eta istiluen aurkako polizien eszenak agertzen ditu; haien ezkutuetan, Walt Whitman-en aipuak daude idatzita edota maitasunerako eta bakerako gonbidapena egiten duten hitzak.

Marrazki-bildumak agerian uzten du terminoaren definizioari berari darion antagonismoa, bakea gatazkaren amaierarekin edo gatazkarik ezarekin baizik identifikatu ez daitekeelako. "Street Diary", New Yorken egon bitartean egin zuen, eta espazio publikoan dagoen indarkeria-susmoaz mintzo zaigu.

"Si ves algo... di algo" lanak, berriz, New Yorkeko Estatu-ko Garraio Agintarietako terrorismoaren aurkako neurritzat sortutako eslogana hartu du izenburutzat. Marrazkietan pertsonaia ageri dira, denak kanpoaldeko lekuetan, batzuk lanean, besteak denbora librean, beti alerta iraunkorreko esaldiaren beraren ondoan.

Elviraren ilustrazio dotore eta zainduak kontraste nabaria dakarte, ez hainbeste irudien gogortasunarekin, baizik eta haien bidez esaten denarekin. Azken buruan, azpian dago nola txertatzen den indarkeria (gauza arriskutsua, etab.) egunerokotasunean, eta horrek kontrol sozialaz pentsatzera garamatza eta nola geureganatzen dugun hori normaltasunez.

Asistimos a una muestra del trabajo de Elvira, que se centra en el dibujo, la ilustración y la edición como repositorio de todo su quehacer... "Los poetas" es una colección de dibujos a tinta sobre papel en la que muestran escenas de policías antidisturbios en cuyos escudos protectores se pueden leer citas de Walt Whitman o enunciados que invitan al amor y la paz. Conflicto visual que choca con la línea clara de sus dibujos.

La serie hace referencia al antagonismo presente en la propia definición del término paz, ya que no puede identificarse solamente con el fin o la ausencia de conflicto. "Street Diary", realizado durante una estancia en Nueva York, versa sobre la sospecha de violencia en el espacio público.

"Si ves algo... di algo" toma como título el slogan creado por las autoridades de transporte del Estado de Nueva York como medida de seguridad antiterrorista. Los dibujos retratan a personas trabajando o pasando su tiempo libre en lugares exteriores, siempre junto al mismo enunciado de alerta permanente. Miedo como violencia impuesta.

Las elegantes y cuidadas ilustraciones de Elvira, contrastan con la dureza, no tanto de la imagen, sino de lo que se dice con ella. Porque de fondo a todo ello está siempre el cómo se incrusta lo violento (lo peligroso, etc.) en lo cotidiano, lo que nos lleva a reflexionar sobre el control social y sobre el modo en que lo asumimos normalmente en nuestra vida cotidiana.



ELVIRA PALAZUELOS

SEAL
"SI VES
ALGO
DI ALGO"
EN NUEVA
YORK

LO PELIGROSO
CAMUFLADO
DE OTRA COSA

PROYECTO
"LOS POETAS"

LA PAZ
ES UN
TÉRMINO
VIOLENTO
POR INCOMODO



Rafa Munarriz

Rafak, hasteko, destockaje-idea deskribatu zuen eta espainiar adreiluaren (bere kontzepturik zabalenean) neurrigabeko ekoizpenaren ondorioz daukagun egoeraz mintzatu zen, neurrigabeko ekoizpen hori bere lanaren bidez jorratzeko.

Bere lan plastikoak eskultura-izaera du, baina oso nabarmen dago errealitateari lotua, eta, egia esan, pieza irmo-irmoak aurkeztu dizkigu: 105 adreilu bloke kubiko batean bildurik eta parakaidas bati lau zintarekin loturik, hots, armadak airetik jaurtikitzen dituen hornigaien antzeko lotea dira.

